

Ebazpena: R042/2023

Espedientea: 7/2014

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 20an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea noraino iristen diren ikuskatzeko eskumenik ez duen Administrazioaren ahalmenak, RCSSA zergapekoaren eragiketa-bolumena sozietateen gaineko zergarengatik eta BEZagatik ikuskatzeko (2009-2012). Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 7/2014 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- RCSSAk Gipuzkoan du egoitza fiskala, eta, haren autolikidazioen arabera, 7.000.000 eurotik gorako bolumena izan du urte eta ekitaldi horietan, eta eragiketa-bolumenaren % 70 baino gehiago egin du Gipuzkoan.

2.- 2013ko irailaren 5ean, ZAEAk lehen errekerimendu bat sinatu zuen, RCSSAren jarduera xehatuaren gainean (jarduera horren izaera komertziala edo

industrialia, hornitzaileak, garraioa, higiezinak, bezeroak barne), eta lurralde erkidean kokatutako fakturazio bakoitzeko 5 bezero nagusiekin kontratuak igortzeko betebeharra jasotzen zuen.

Zergapekoak 2013ko irailaren 23an erantzun zion errekerimenduari.

3.- 2013ko urriaren 10ean, ZAEAk langileek eginbide bat formalizatu zuten, egoitza fiskala egiaztatzearekin zerikusia dutela diruditen alderdiak egiaztatzeko galderak egiteko.

4.- 2013ko azaroaren 4an, ZAEAk beste errekerimendu bat egin zuen, zeinaren bidez zenbait datu egiaztatzerantz bideratua zirudien informazioa eskatzen baitzuen, hala nola egoitza fiskala (Gipuzkoan dituen baliabide materialak eta giza baliabideak, negozioen administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza egiteko), lan pertsonalagatik atxikipenen sarrera (komertzialen zerrenda, bakoitzari esleitutako eremu geografikoa identifikatuta) eta lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumena (Espainiako lurraldean dituen denda bakoitzean egindako salmenten zerrenda).

5.- 2013ko abenduaren 22an, GFAk inhibizioa eskatu zion ZAEARI, zergapekoaren eragiketen bolumena egiaztatzeko egindako jarduketan irismenari zegokionez; izan ere, haren gainean ez du ikuskatzeko eskumenik sozietateen gaineko zerga eta BEZa (2009-2012) egiaztatzeko.

6.- 2014ko urtarrilaren 22an, ZAEAk berretsi egin zuen RCSSAren eragiketen bolumena egiaztatzeko egindako jarduketan gaineko eskumena.

7.- 2014ko otsailaren 19an, GFAk eskumen-gatazka jarri zuen; 7/2014 espediente-zenbakia esleitu zitzaion, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat.b) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

2.- Arbitraje Batzordearen jarrera

2.1.- Egindako jarduketak

ZAEAREN informazio-eskakizunak ikuskapen-prozedura baten barruan sartzen dira. Hala ondorioztatzen da, ZAEAK inhibizio-errekerimenduari emandako erantzunean adierazitakoa gorabehera (ZAEAK aipatutako informazio-errekerimenduetan garatutako jarduketak ez dira inoiz ikuskapen-jarduketak), kontuan hartzen badugu Ikuskapen Bulegoak egiten dituela eta errekerimenduetan ohartarazten dela TLOK Ikuskaritzari emandako ahalmenek babesten dituztela.

Ikuskapen-prozedura horrek, inhibizio-errekerimenduari erantzuteko ZAEAK egindako adierazpenen arabera, eragiketa-bolumena egiaztatzea zuen helburu, sozietateen gaineko zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

2.2.- Egindako jarduketan irismena.

Ekonomia Itunaren 19.Lau artikulua honako hau xedatzen du:

Egiaztapenetan administrazio eskudunak ezartzen dituzten proportzioek ondorioak izango dituzte subjektu pasiboarekiko, likidatutako betebeharre dagokienez, baina horrek ez du galarazten egiaztapen horien ondoren bi administrazioen artean behin betiko beste proportzio batzuk erabakitzea.

Ekonomia Itunaren 29.Sei.Laugarren artikulua honako hau xedatzen du:

Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioak subjektu pasiboarentzat ere ondorioak ekarriko ditu, likidatutako betebeharren inguruan, baina horrek ez du galarazten egiaztapen horien ondoren bi administrazioen artean behin betiko beste proportzio batzuk erabakitzea.

Horren arabera, bai Arbitraje Batzordeak 17/2013 Ebazpenean, bai Auzitegi Gorenak 2015eko maiatzaren 11ko Epaian (441/2013 Errekurtsoa, ECLI:ES:TS:2015:2092) adierazten dute ikuskatzeko eskumena duen administrazioak bakarrik egiazta dezakeela eragiketen bolumena.

ZAEA eta foru-aldundiak, Legearen eta Zuzenbidearen mende baitaude administrazio gisa, Espainiako Konstituzioaren 103. artikuluari jarraikiz, 2006. urtean akordio batzuk sinatu zituzten, eta horien bidez, eragiketen bolumena egiaztatzeari dagokionez konpromiso hau hartu zuten: *Ikuskatzeko eskumenik ez duten administrazioek, zergadun jakin bati dagokionez, lurralde bakoitzeko eragiketen bolumena egiazta ditzan eska diezaioke eskumendunari. Horretarako, ikuskatzeko eskumenik ez duen administrazioak txosten bat*

bidaliko dio eskudunari, helburu horretarako beharrezkoak diren datuak hartze hutsaren bitartez zergadunarengandik lortutako datuekin.

Auzitegi Gorenaren aipaturiko 2092/2015 Epaiaren arabera, transkribatutako akordioa betez, zeinari balioa ematen baitio Ekonomia Itunaren irizpide hermeneutiko gisa, ikuskatzeko eskumenik ez duen administrazioak datuak jaso baino ezin du egin, eta ezin du eskatu ez memoriarik, ez kudeaketa-txostenik, ez eta beste lurraldean egindako eragiketarik ere txosten bat osatzeko, eta horren babesean eskatu ikuskatze-eskumena duen administrazioari eragiketen bolumena egiazta dezan.

Aipatutako epaiak ezarritako irizpidea kasu honetara ekartzeko (horretan, GFari dagokio ikuskatzeko eskumena), interpretatu behar da ezen, ZAEAREN kudeaketa-eskumena Estatu osora hedatzen bada ere, ZAEAK ezin duela daturik hartu GFAREN ikuskapen-eskumeneko lurralde-eremuan (Gipuzkoa) egindako eragiketei buruz.

Hori alde batera utzita, errekerimenduaren irismen materialak, enplegatuei, bezeroei, hornitzaileei, instalazioei eta abarri eragiten dienez, argi eta garbi gainditzen du datu-bilketa soiltzat hartzen dena.

Beraz, argi dago ZAEAK gehiegikeriaz jokatu duela zergapekoaren eragiketen bolumena egiaztatzeko eskaera justifikatzen duen txosten bat egiteko eskumenak baliatzean.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- Adieraztea Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak 2009-2012 urteetako sozietateen gaineko zergari eta BEZari buruz egindako informazio-errekerimenduek gainditu egiten dutela Ekonomia Itunak ordainarazteko eta kudeatzeko (baina ez ikuskatzeko) eskumena duen administrazioari esleitzen dizkion eskumenen eremua.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta RCSSAri jakinaraztea.